



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2020ko IRAILAREN 8an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2020ko irailaren 8an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Koldobika Jauregi Zinkunegi Alkateordearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEORDEA : Koldobika Jauregi Zinkunegi

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Concepcion Soria Legua  
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

Bere ezin etorria azaltzen du: Shrabani Aranzabe Pita eta Unai Sorarrain Urruzola.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
  - ✓ 2020ko ekainaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.
  - ✓ 2020ko uztailaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako frontoiko teilatuan instalazio fotovoltaiko baten horniketa eta muntaia kontratatzeko lizitazioaren eta baldintza administrativo eta teknikoen onespena, hala bada.**
- 5. Alkizako Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren dokumentua egiteko lanen esleipena, hala bada.**
- 6. Alkizako Plan Orokorrekin jarraitzeko lanen esleipena, hala bada.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Mozioak, erreguak eta galderak.**

.../...

### **LEHEN PUNTUA** **AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- 2020ko ekainaren 30eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2020ko uztailaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 111/2020tik 114/2020ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ez dira aurkezten.

### **LAUGARREN PUNTUA** **ALKIZAKO FRONTOIKO TEILATUAN INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BATEN HORNIKETA ETA MUNTAIA KONTRATATZEKO LIZITAZIOAREN ETA BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONESPENA, HALA BADA**

Gaia, Alkatzaren eskuduntza denez, Udalbatzak ez du tratatuko.

### **BOSTGARREN PUNTUA** **ALKIZAKO INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN DOKUMENTUA EGITEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusita, Alkizako Hiri-antolamenduko Plan orokorraren idazketa lanak orain dela bi legealdi hasi zirela, aurrerapenaren dokumenturarte onartu zirelarik.

Ikusirik, Legealdi berri honetan Alkizako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren idazketarekin jarraitu behar dela, gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioak 2/2006 Lurzoruaren Legea egokitzeko. Horretarako Foru Aldunditik jakinarazi digute, orain arte egindako lanak



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ez dutela balio eta berriro Ingurumen ebaluazio estrategikoko txostena egin behar dela egon diren lege aldaketei egokitzeko.

Horiek horrela, Araudi enpresari aurrekontu bat eskatu zaio, lanak hiru zatitan banatu dituztelarik, momentuz, lehenengo atala, “ Documento Inicial Estrategico” gauzatu behar da, bere aurrekontua, 4.000,00euro izanik.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ARAUDI *enpresari*, Alkizako Hiri Antolatzeko Plan Orokorren idazketan, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren txostenaren barruan, Haserako *dokumentua idazteko* kontratua esleitzea 4.000,00€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 642.920.00.01 kontu sailaren kontura egingo da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri ARAUDI *enpresari* ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA IDAZTEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusita, Alkizako Hiri-antolamenduko Plan orokorraren idazketa lanak orain dela bi legealdi hasi zirela, aurrerapenaren dokumenturarte onartu zirelarik.

Ikusirik, Legealdi berri honetan Alkizako Hiri-antolamenduko Plan Orokorren idazketarekin jarraitu behar dela, gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioak 2/2006 Lurzoruaren Legera egokitzeko. Horretarako Foru Aldunditik jakinarazi digute, orain arte egindako lanak ez dutela balio eta berriro Ingurumen ebaluazio estrategikoko txostena egin behar dela egon diren lege aldaketei egokitzeko.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Horiek horrela, Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapenaren idazketa lanekin hasi behar da, horretarako Alkizako Udalak hiru aurrekontu eskatu ditu: Eba Erkizia, Juan Ramon Ojeda eta Beñat Etxeberria arkitektoei.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Aipaturiko aurrekontuak azterturik, Eba Erkizia arkitektuarena egokiena dela aurriztatu da.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eba Erkizia arkitektuari, Alkizako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren idazketan, aurrerapena idazteko kontratua esleitzea 14.500,00€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 642.920.00.01 kontu sailaren kontura egingo da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Eba Erkizia, Juan Ramon Ojeda eta Beñat Etxeberria arkitektoei ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***

### **7.1. 3/2020 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Udala honen 2020 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko 3/2019 kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena:

### KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.623.342.00.02 2020	plaka futboltaikoen instalazioa	0,00	26.819,45	26.819,45
<b>GUZTIRA</b>		0,00	26.819,45	26.819,45

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.710.342.00.03 2020	EVE . Plaka futboltaikoen instalazioa	10.682,42
c	2 0000.720.342.00.07 2020	G.F.A. plaka futboltaikoak	5.040,00



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

a	2 0000.870.000.00.01 2020	KREDITU GERAKINA 2019	11.097,03
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>26.819,45</b>

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

## **7.2. COVID19 DELA ETA, ESKOLA GARBITZEKO PROTOKOLOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik, COVID 19 osasun krisia dela eta eskola garbitzeko protokolo bat onartu behar du Alkizako Udalak, berari bai dagokio eskolaren garbitasuna.

Ikusirik, aipaturiko protokoloa idatzi dela, ondorengo diolarik:

### **“COVID DELA ETA, ESKOLA GARBITZEKO PROTOKOLOA**

Covid-19aren pandemia dela eta, kontuan harturik herriko eskolaren garbiketa udalaren ardura dela, udalak neurrik hauek hartuko ditu eskolako jarduera ahalik eta seguruen egin dadin.

- 1- Eskolako eraikina egunean bi bider garbituko da. Eguerdierdiko garbiketa bazkalorduan egingo da. Horretan komunak eta elementu amankomunak (baranda, ate nagusietako maratilak eta antzekoak) zainduko dira bereziki. Arratsaldeko garbiketa eskola-jarduera bukatzean egingo eta izaera orokorra izango du, hots, eskola osorik garbituko da.
- 2- Beharrezkoa ikusiz gero, eskola-arduradunek horrela eskatuta, komunak goiz erdian ere erreparatuko dira.
- 3- Udalak eskola garbiketa eta desinfekzio-elementuz horituko du, hala nola, esku-papera eta gel desinfektatzailea. Garbiketako papera biltzeko zaborrontzi egoki hornituko dira eskolako komunak.
- 4- Eskola-patio moduan usatzen diren herriko plaza, parke eta frontoia ere sakon garbituko dira. Parkeko elementuak, zabu, txirrista eta antzekoak, egunero desinfektatuko dira; frontoia astean bitan (astelehen eta ostegunean) eta plaza astean behin.





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

5- Frontoiaren eta parkearen sarreran gel desinfektatzailea banatzeko sistema operatiboa dagoela bermatuko da.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Covid 19a dela eta, prestatutako eskola garbitzeko protokoloa onestea. Ondorengoa delarik:

### **COVID DELA ETA, ESKOLA GARBITZEKO PROTOKOLOA**

Covid-19aren pandemia dela eta, kontuan harturik herriko eskolaren garbiketa udalaren ardura dela, udalak neurrik hauek hartuko ditu eskolako jarduera ahalik eta seguruena egin dadin.

- 1- Eskolako eraikina egunean bi bider garbituko da. Eguerdierdiko garbiketa bazkalorduan egingo da. Horretan komunak eta elementu amankomunak (baranda, ate nagusietako maratilak eta antzekoak) zainduko dira bereziki. Arratsaldeko garbiketa eskola-jarduera bukatzean egingo eta izaera orokorra izango du, hots, eskola osorik garbituko da.
- 2- Beharrezkoa ikusiz gero, eskola-arduradunek horrela eskatuta, komunak goiz erdian ere errepasatuko dira.
- 3- Udalak eskola garbiketa eta desinfekzio-elementuz horituko du, hala nola, esku-papera eta gel desinfektatzailea. Garbiketako papera biltzeko zaborrontzi egoki hornituko dira eskolako komunak.
- 4- Eskola-patio moduan usatzen diren herriko plaza, parke eta frontoia ere sakon garbituko dira. Parkeko elementuak, zabu, txirrista eta antzekoak, egunero desinfektatuko dira; frontoia astean bitan (astelehen eta ostegunean) eta plaza astean behin.
- 5- Frontoiaren eta parkearen sarreran gel desinfektatzailea banatzeko sistema operatiboa dagoela bermatuko da.”

**7.3.GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 7.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO, UDAL PLANGINTZA OROKORREKO HIRIGINTZA TRESNAK BERRIKUSTEKO ETA 2006KO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGEA (LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO LEGERA) EGOKITZEKO GASTUAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusita, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerriei diru-laguntzak emateko, hain zuzen ere, udal plangintza orokorreko hirigintza tresnak berrikusteko eta 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legera (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legera) egokitzeko gastuak finantzatzeko 2020ko deialdia argitaratu dela.

Ikusita, Alkizako Udalak asmoa duela legealdi honetan Plan Orokorrarekin jarraitzea, indarrean dituen arau subsidiarioak oso zaharkituta gelditu direlako, azken hauek, 2/2006 Legera egokitu nahi dituelarik.

Guzti hau kontutan izanik, Alkizako Udalak asmoa du Gipuzkoako Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerriei diru-laguntzak emateko, hain zuzen ere, udal plangintza orokorreko hirigintza tresnak berrikusteko eta 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legera (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legera) egokitzeko gastuak finantzatzeko 2020ko deialdiaren babesean diru-laguntza eskaera egitea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerriei diru-laguntzak emateko, hain zuzen ere, udal plangintza orokorreko hirigintza tresnak berrikusteko eta 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legera (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legera) egokitzeko gastuak finantzatzeko 2020ko deialdiaren babesean diru-laguntza eskaera egitea.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Inaki Irazabalbeitia Fernandez jauna, ahalmentzea, Alkizako udalaren izenean aipaturiko diru-laguntza eskaera egiteko.

#### **7.4.ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: BI BEKEN ESLEIPENA**

Ikusirik 2020ko maiatzaren 26an egindako Udalbatzarrean, Alkizako Sormenaren kabia: Deialdiaren hasiera eta oinarrien onespena erabaki zela.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik aipaturiko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, ekainaren 2an, proposamenak aurkezteko epea ireki zelarik, ekainaren 5etik uztailaren 5era.

Ikusirik, 2020ko ekainaren 30ean Sormenaren kabiaren irabazleak aukeratzeko bilkura egin zela. Bilkura honetatik bi irabazle proposamen aurkeztu zirelarik:

Ikusirik Sormenaren kabiaren proiektuak baloratzeko 2020ko uztailaren 30ean, Aizpea Goenaga Mendiola, Koldobika Jauregui Zinkunegi, Nagore Legarreta Alcelay eta Xabier Artola Zubillaga jaun/andreak osaturiko epaimahaia bildu zela. Ondorengo proposamena hartu zutelarik:

Idoia Unzurrunzaga eta Maria Andres sortzaileei esleitzea 2020 urteko Sormenaren Kabiaren bi beka.

Gaia aztertutik Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Idoia Unzurrunzaga eta Maria Andres sortzaileei Sormenaren kabiaren beka onuradunak izateko onespena ematea.

BIGARRENA.- Idoia Unzurrunzaga eta Maria Andres andreei 1.000,00 euroko beka bana ematea eta bakoitzari Lete nekazaltxean 3 asteko egonaldia ordaintzea. Dagokion gastua onestuz, ordainketa udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kontura egingo delarik.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

#### **8.1. ALKIZAKO ABERTZALE EZKERTIARRAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN ONESPENA: ALKIZAKO UDALA ARIGUNEA**

Ikusirik Alkizako Abertzale Ezkertiarrak aurkezturiko mozioa, non ondorengo dioen:

#### **“ALKIZAKO UDALA ARIGUNEA**

2018an, hainbat eta hainbat norbanakoren hizkuntza ohituretan eraginez, Euskal Herriaren luze-zabalean mingainak dantzan eta belarriak adi jarri zituen EUSKARALDIA izeneko hamaika eguneko gizarte ekimena abiatu zen. Udalerri euskaldunetan ingurukoetan baino



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

eragiteko premia gutxiago izan arren, bazegoen nondik heldu; erdal korronteak ia oharkabean etengabe kolpatzen eta bere uretara eramaten baikaitu hemen ere egunero. Kontzientziak pizten jarraitzea da gure lanak, eta eredu izatea ere badagokigu, noski. Udalerrri euskaldunak saretuz, haiek elkartuko dituen lurgunea osatzea da UEMArekin oinarrietako bat. UEMako herritarrok gure nortasunaren ikur nagusi den hizkuntza erabiltzeak zenbaterainoko garrantzia duen jabetzea eta inguruan eragitea lortu nahi badugu, ezin gara horrelako ekimen batetik kanpo geratu. Gogotsu ekin genien Euskaraldiaren lehen urratsei, eta lehen aldi hark eman zituen bere fruituak, baita gurean ere.

Oraingo honetan (2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra), ordea, gizarte ariketa horren bigarren olatua dator; harrokeriarik gabe, baina harrotasunez ekingo diogu bigarren oldarraldi honi ere. Oldarraldia diogu, bai. Garena erakusteko lotsaz bizi garela baitirudi batzuetan, eta zoritxarrez euskararen aurkako euri-jasak ez du ater unerik. Hortaz, naturaltasunez eta asmo txarrik gabe, abesti hark dioen bezala, *“...ez dugu beste inor mendean hartu nahi, etorkizuna hautatu ez besterik”*. Gure hautua euskaraz bizitzen jarraitzea eta ingurukoak (euskaraz ez dakitenak edota euskaraz egiteko hainbesteko ohiturarik ez dutenak) ere gure altxor bizi honetaz gozatzera gonbidatzea izango da.

Bigarren aldi honek badu berritasunik. Lehen alditik honako jauzia nabarmena da: aurreko aldian, norbanakoetan jarri ziren begiak; oraingo honetan, aldiz, entitateok (udal, erakunde, merkatari-ostalari, enpresa, elkarte...) ere parte hartuko dugu.

Udala osatzen dugun udal ordezkarioi eta langileoi herritarrentzat eredu izatea dagokigu. Guk hizkuntzarekiko hartzen dugun jarrerak eragina du beraiengan. Alkizako udalean euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza da aspalditik eta horrela izaten segituko du etorkizunean.

Hori guztia dela eta erabaki hauek hartzen ditugu:

- 1.-Euskaraldian parte hartzeko Alkizako udala “Barne arigune” eta “Kanpo arigune”(euskarazko ulermena %100ekoa den gunea; eta beraz, nahi duenak euskaraz aritu ahalko duen tokia) jizendatzea.
- 2.-Herriko gizarte-eragileei beren burua arigune izenda dezaten eskatzea.
- 3.-Herritar guztiak gonbidatzea Euskaraldian izena ematera eta parte hartzera, laster egongo baita izena emateko aukera zabalik.”



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako Abertzale Ezkertiarrak aurkezturiko “Alkizako Udala arigunea” mozioa bere osotasunean onartzea.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakariorde Jaunak bilkura 20.40 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

IDAZKARIAK